

## IRABAZI-ITURRIAK

Gure irabazi-iturriak saltzen dugun janariaren arabera izango dira.

Janaria momentuan prestatuko dugu, eskariaren arabera. Ondorioz, eskariaren arabera izango dira gure diru-sarrerak.

Prezioak finkatuta daude. Prezioak, gure kostuak kontuan hartuta daude jarrita. Gure prezioak pertsona guztiek erosi ahal izateko modukoak dira. Kostuak finkoak izanda ere, noizean behin beherapenak izango ditugu. Lehenengo astean postreak doan izango dira, eta hurrengo asteetan ostiralero zozketa bat egingo da eta irabazleak hurrengo eskaeran 20 euroko deskontua edukiko du. Asteazken egindako erosketa bakoitzari zenbaki bat emango zaio.

